

ZERRENDAK ARGITARATZEA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2021ko maiatzaren 10ean.

Tokia: Lizarra Udalako web gunean. www.estella-lizarra.com

ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: 2021ko maiatzaren 10etik 14ra.

Tokia: 1. Lizarra Udalako bulego orokorretan (SARRERA-ERREGISTROAN) astelehenetik ostiralera 9:30etatik 14:00era.

2. Lizarra Udalako web gunean EGOITZA ELEKTRONIKOAREN bidez (telematikoa). <https://sedeelectronica.estella-lizarra.com>

Hautapen Batzordeari zuzenduko zaizkio, behin-behineko zerrendetan agertutako puntuazioa berrikusteko zergatik eskatzen den azalduz. Ez da inolaz ere onartuko eskaerak aurkezteko epean aurkeztu ez den dokumentazio berririk, non ez den aurkezten akatsak zuzentzeko, hasieran aurkeztutako dokumentazioa falta den moduan.

BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: 2021ko maiatzaren 24ean.

Tokia: Lizarra Udalako web gunean. www.estella-lizarra.com

MATRIKULA

MATRIKULA FORMALIZATZEA: 2021ko maiatzaren 24tik 28ra.

Tokia: Lizarra Udalako bulego orokorretan (SARRERA-ERREGISTROAN) astelehenetik ostiralera 9:30etatik 14:00era.

2. Lizarra Udalako web gunean EGOITZA ELEKTRONIKOAREN bidez (telematikoa). <https://sedeelectronica.estella-lizarra.com>

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.
- Matrikulan ezarritako kuota ordaindu izanaren egiaztatzea: horretarako 75 euroko ordainketa familiak emandako kontu korrontetik pasatuko zaie matrikularen fidantza gisa. Entitate titularra izango da ordainketa honen konprobaketa egitearen arduradura.
- 2020ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren fotokopia, aitarena eta amarena edo legezko tutoreak. Azterketa egitera behartuta ez badaude, dagokion dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, edo, azken buruan, 2020ko errenten eta diru-sarreraren zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titularrak urte horretako familiaren diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak. Dokumentu hau 2021eko ekainaren 30era arte aurkez daiteke.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituenak.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

OHARRAK ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean, edo 12 hilabete, urte batetik beherako haurtzaroko instalaziorik ez duten ikastetxeen kasuan.

- Ezarritako epean matrikularik egiten ez bada eta agiriren bat aurkezten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste bati esleituko zaio itxaron-zerrendako hurrenkerari jarraikiz.
- Eskatutako aukeretako batean matrikula egiteak berekin ekarriko du ikastetxe bereko beste aukerei edo herri bereko beste zeinahi ikastetxetako aukerei uko egitea, ikastetxearen titularra den toki entitateak hala ezartzen duen udalerrietan.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
- Egiatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak noiznahi eska dezake interesdunek aurkeztutako dokumentazioaren akats formalak zuzentzeko.

Edozein zalantza argitzeko deitu 948 55 20 39 telefonora goizez, 9:00 etatik 14:00 etara.